



87. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2014ko azaroaren 27an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

Bertaratutako zinegotziak: Arritokieta Gonzalez Elosua and..
Iñaki Ostolaza Esnal jn
Peru Fernandez-Arroiabe Txapartegi jn.
Eneko Agirre Maiora jn.
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Edurne Egaña Manterola and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Xabier Gallastegi Idigoras jn.
Isidro Fernandez Echave jn
Aitor Leiza Alberdi jn
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

Ez bertaratuak

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre

EGUNeko AZTERGAIAK

1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (82. zbkia - 2014.06.26);



82. akta onartutzat eman da

2.- OGASUNA.-

2.1.- UDALAREN 13. ETA KIROL PATRONATUAREN 2. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.

Kirol Patronatuko 2.kreditu aldaketa.				
637/2014 alkate dekretua.				
Zaldi lasterketa antolatzen duen elkarteari dirulaguntza.				

			Hasierako kreditua	Gutxikuntza	Guztira
1 0000.226.452.10.90 2014	94	ZALDI LASTERKETA	2.500,00	2.000,00	500,00

			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0000.481.452.10.04 2014	19	KIROL JAR DUE RATARAKO DIRU LAGUNTZA	52.000,00	2.000,00	54.000,00

Udaleko 13.kreditu aldaketa					
638/2014 alkate dekretua					
2 ekipo berri erosteko kreditu aldaketa					

			Hasierako kreditua	Gutxikuntza	Guztira
1 0900.227.121.00.97 2014	45	SAVIA APLIKAZIOAREN MANTENUA	3.690,00	1.000,00	2.690,00

			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0900.626.121.00.01 2014	583	E KIP AMENDU INFOR MATIKOA	13.000,00	1.000,00	14.000,00

Arritokieta Gonzalezek (EH BILDU) kreditu aldaketaren berri eman du.

2.2.- IRIZPENAK:

2.2.1.- AITA-MARI AUZATEGIA BERRURBANIZATZEKO, (GARAJEAK) KONPROMISO KREDITUA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

"AITA MARIKO KONPROMISO-KREDITUEN IRIZPENA

AURREKARIAK



Zumaiako Udala

2014IAKU0013-007-002

Datorren urteetarako ez dago ezer aurreikusita, eta sinatuko den Aita Mariko garajeen hitzarmenaren ondorioz konpromiso-kredituak onartu beharra dago.

Aita Mariko garajeentzako guztira 239.258,10€ beharrezkoak dira eta, horretarako, ondorengo konpromiso-kredituak onartzea proposatzen da:

2015erako konpromiso-kreditu berriak sortzea:

GASTUAK:

"5 0100.601.511.00.03 2015" "AITA MARIKO BERRURBANIZAZIOA, SABAIAN ERABILERA PUBLIKOA DUTEN GARAJEA":239.258,10€

SARRERAK:

"7 0000.780.000.00.01 2015" "AITA MARIKO BERURBANIZAZIOAREN EKARPENA": 34.404,69€
"2015eko AURREZKI GARBIA": 204.853,41€

Konpromiso-kreditu honek 21/2003 foru arauak 22.artikuluan dioena betetzen du.

IRIZPENA

Hori dela eta, 2014ko azaroaren 18ko Ogasun Batzordeak onartu du Aita Mariko konpromiso-kredituen proposamena.

Aldeko botoak: 4 (2 Bildu, 1 Aralar, 1 PSOE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzia: 1 (EAJ)

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabaki da.

Zumaian, 2014ko azaroaren 18an.
Miguel Zubizarreta Elicegui
Kontu-hartzailea."

Alkateak gaia aurkeztu du.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) euren harridura azaldu du kreditu aldaketa honen aurrean, teknikoki ez baitu oso egokia jotzen eta gainera hurrengo aurrekontua hipotekatu egiten delako.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 8 boto (6 EH BILDU, 1 PSE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzia: 5 boto (4 EAJ-PNV)



ERABAKIA:

Aita-mari auzategia berrurbanizatzeko, (garajeak) konpromiso kreditua onartu da.

2.2.2.- ARTADIKO SANEAAMENDURAKO KONPROMISO KREDITUA ONARTZEA BIDEZKO BADA.

ARTADIKO SANEAAMENDURAKO KONPROMISO- KREDITUEN IRIZPENA

AURREKARIAK

2014ko aurrekontuan Artadiko Saneamendurako 30.000€-ko partida bat dago aurreikusita.

Datorren urteetarako ez dago ezer aurreikusita, eta sinatuko den hitzarmenaren ondorioz konpromiso- kredituak onartu beharra dago.

Artadiko Saneamendu honetarako guztira 491.936€ beharrezkoak dira eta horretarako, ondorengo konpromiso- kredituak onartzea proposatzen da:

2015, 2016 eta 2017rako konpromiso- kreditu berriak sortzea:
"5 0100.601.441.00.02 2015" "ARTADIKO SANEAAMENDUA": 30.000€
"5 0100.601.441.00.02 2016" "ARTADIKO SANEAAMENDUA": 230.968€
"5 0100.601.441.00.02 2017" "ARTADIKO SANEAAMENDUA": 230.968€

Finantzatzeko 2015, 2016 eta 2017ko aurrezki garbiak erabiliko dira

Konpromiso- kreditu honek 21/2003 foru arauak 22.artikuluan dioena betetzen du.

IRIZPENA

Hori dela eta, 2014ko azaroaren 18ko Ogasun Batzordeak onartu du Artadiko konpromiso-kredituen proposamena.

Aldeko botoak: 4 (2 Bildu, 1 Aralar, 1 PSOE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzia: 1 (EAJ)

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea erabaki da.

Zumaian, 2014ko azaroaren 18an.
Miguel Zubizarreta Elicegi
Kontu-hartzalea.



Alkateak gaia aurkeztu du.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) aurreko irizpenean bezala aurrekontu-teknika ez egokitzat jo du.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 8 boto (6 EH BILDU, 1 PSE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 5 boto (4 EAJ-PNV)

ERABAKIA:

Artadiko saneamendurako konpromiso kreditua onartu da.

3.- INGURUMENA.-

IRIZPENA:

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2014KO AZAROAREN 24KO INGURUMEN BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO.

AURREKARIAK

1.- Ikusirik, martxoaren 21eko 191/2012 Alkate dekretu bidez, EKOLUR INGURUMEN AHOLKULARITZA S.L.L. enpresari esleitu zitzaiola Urola Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezia landu eta idazteko laguntza eta aholkularitza zerbitzua emateko kontratua.

Ikusirik, Plan Bereziaren helburuak hurrengokoak direla:

- Natur baliabideak kontserbatu, hobetu eta berreskuratu.
- Estuarioaren erregimen hidrologiko naturala eta haren dinamika mantendu eta bermatu, haren birsorkuntza sustatzu.
- Sistema barruko habitatak eta flora zein fauna populazioak aktiboki kontserbatu eta hoheren ordezkatutakoak babestu.



Zumaiako Udala

2014IAKU0013-007-002

- Uren kalitatea bermatu.
- Flora aloktono inbaditzalea erauzi.
- Aisialdirako erabilerak eta hiri-presioak kontrolatu.

Ikusirik, Plan Bereziaren dokumentazioa hurrengoa dela:

- A- I. MEMORIA (Informazio- eta justifikazio-memoria. Diagnostikoa. Plan Bereziaren helburuak eta antolamendu-proposamenaren oinarriak)
- A- II. MEMORIA (Ekintza-plana)
- A- III. MEMORIA (Partaidetza plana)
- B- Antolaketa-jarraibideen azterketa eta plana gauzatzeko prozesuaren kudeaketa.
- C- Hirigintza-araudia.
- E- Informazio-planoak eta antolamendu xehakatuaren planoak.

Plan Bereziaren eraginpeko eremuak 160,32 ha azalera osoa du. Zumaia (154,56 ha), Getaria (2,06 ha, Santixoko ingurunean) eta Zestoako (3,72 ha, Beduako meandroan) udalerrien artean banatzen dena.

Ikusirik, azaroaren 29ko 782/2013 Alkate dekretu bidez, hasierako onarpena eman zitzaiola Zumaiako Udalak sustatutako eta Ekolur Ingurumen Ahokularitza S.L.Lek idatzitako Urola Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziari.

Espedientea, plana barne, hila beteko epean ikusgai jarri da. Era berean, hizpide dugun dokumentuan adierazitako erakundeei ere kontsultatu zaie, espedientea begiratu eta oharrak egin ditzaten. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkia 2013ko abenduaren 13an eta Berria, Urola Kostako Hitz eta Diario Vasco egunkarietan 2013ko abenduaren 12an. Era berean, udaleko iragarki taulan eta Zumaiako Udaletxeko webgunean ere argitaratu da

2.- Ikusirik, Zumaiako Udaleko udalbatzak, 2014ko martxoaren 13an egindako ezohiko bilkuran, beste batzuen artean erabaki hau hartu zuela:

LEHENA.- Zumaiako udal zerbitzu teknikoen txostenaren arabera:

- Zestoako Udalak aurkeztutako alegazioa onartzea eta hori dela eta jarduketa berri bat sortu (04.11.02. Beduaren osotasunezko berreskuratze eta zaharberritze Plan Berezia idaztea).
 - Miguel Urbíeta Mancisidorrek aurkeztutako alegazioa ez onartzea horma bat eraikitzeko proposamena ez dator bat Plan Bereziaren helburuekin eta.
 - Nikanor Lertxundi Ibarguren, Getariako Alkateak, aurkeztutako alegazioa ez onartzea, Plan Bereziko informazio eta antolaketako planoak orientagarriak baino ez dira eta.
 - Pedro María Izquega Muruak, Arkamurka Natur Elkartearren izenean aurkeztutako alegozioa ez onartzea.
- Antonio Mateos Garcíak aurkeztutako alegazioa ez onartzea.

BIGARRENA.- Erakundeetatik jasotako bost alegazioak onartzea.

HIRUGARRENA.- Zumaiako Udalak sustatutako eta Ekolur Ingurumen Ahokularitza S.L.Lek idatzitako Urola Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziari behin behineko onarpena ematea.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkia 2014ko martxoaren 27an eta Berria, Urola Kostako Hitz eta Diario Vasco egunkarietan 2014ko martxoaren 21ean. Era berean, udaleko iragarki taulan eta Zumaiako Udaletxeko webgunean ere argitaratu da.

3.- Ikusirik, 2014ko apirilaren 9an Euskal Herriko Lurralteko Antolamendurako Batzordeari txostena esku zuitzaiola, 2/2006 Legeko 91.artikuluaren arabera.



Zumaiako Udala

2014IAKU0013-007-002

4.- Ikusirik, 2014ko uztailaren 14an, Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Batzordearen ziurtagiria jaso zela eta bertan eskatu zela, Obra Publikoetako Zerbitzuak egindako txostenean jasotako baldintzak dokumentuan barneratzea:

Obra Publikoetako Zerbitzuaren txostena:

Kontradickeak, bere mantentze-lanak bermatu ahal izateko, makineria astunarentzako sarbidea edukitzea ziurtatuta eduki behar du.

01.02.05 egintza bezala “Dikearen harri-lubetaren aldameneko gunea berreskuratu behar da” aipagarria da, egitura horretan material xeheen ekarpena ez dela egokia, beraz ezingo litzateke egintza hau burutu izendatutako baldintzetan. Hirugarrenek egin ditzaketen egintzak, beti ere, portuetako agintaritzak baimenduta egon beharko dute.

1-03 esku-hartze gunerako proposatutako egintzak, ia bere osotasunean portuaren gunean barneratuta daude. Gune horretan, garbiketa lanak egin hala izateko, sarbidea edukitzea soilik aurreikusi behar da (hondarra eta lokatza), kirol portuaren mugan.

Zumaiako portuaren gunea, Garraio eta Komunikazio Sistema Orokorra – Portuaren gune bezala jasoko da, bere antolaketa, garatuko duen Plan Bereziaren arautuz eta inguru horretarako ez da inolako zehaztapenik egingo.

Kudeaketarako proposamenak, ibaian pantalanak birkokatzea adibidez, hainbat lotune antolatzea, eskumena duen erakundeak aztertuko eta onartuko ditu, egokitzat jotzen badu. Beste batzuk, garaia denean, arrapalan bainua hartzeko aukera bezala, ez dira onargarriak, segurtasun arrazoiengatik.

Azkenik, azpimarratu, kirol jabegoari eragin dezaketen egintza guztiak, proposamen bakoitzaren bideragarritasuna aztertu ondoren, onartu beharko dira txosten teknikoaren eta juridikoaren bitartez.

5.- Ikusirik, 2014ko uztailaren 24an, Itsasertzetako eta Itsasoko Jasangarritasunerako Zuzendaritza Orokorraren (Itsas-Lehorreko Jabego Publikoaren Zuzendaritzaorde Orokorra) txostena jaso zela eta honako ondorioak dituela:

Aurreko ikusirik eta beti ere, 04.05.03 Egintza gunean, 19a planoa zuzentzen bada, Zuzendaritza Orokor honek, Urola Ibaia Mantentzeko eta Kontserbatzeko Plan Bereziaren aldeko txostena egiten da, Itsasertzetako Legearen ezargarriak diren zehaztapenak betetzen direla ulertzen delako.

6.- Ikusirik, Udal zerbitzu teknikoen txostena.

7.- Ikusirik, Zumaiako Udaleko udalbatzak, 2014ko irailaren 11n egindako ezohiko bilkuran erabaki zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenen ezarritako aldaketak jasotzen dituen Urola ibaia babesteko eta mantentzeko Plan Bereziari behin-behineko onarpena ematea.

Erabakiak honakoa dio:

LEHENA.- Zumaiako udal zerbitzu teknikoen txostenenaren arabera:

- Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Batzordeak ezarritako baldintzak, dokumentuan barneratzea onartzea. Honakoak dira:

Obra Publikoetako Zerbitzua:

- Dikea konpondu ahal izateko makineriaren sarrera onartzea (1-02 esku-hartze gunea), kirol portuaren inguruko lokatzak garbitzea (1-03 esku-hartze gunea)
- Portu-gunearen kudeaketa.
- Kontradickearen konponketa.



- Portu gunean kokatutako proposamenen izaera orientatzailearen erreferentzia.
- Portu gunean, bainua hartzeko tokien mugaketa kentzea egintzetatik (lehengo 02.01-03 egintza)
- Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Orokorren (Itsas-Lehorreko Zuzendaritzarorde Orokorra) txostenean ezarritako onartzea, honako ondorioekin:
- "Itsas Lehorreko Jabego Publikoaren Babestutako Zerbitzapenean" marran dagoen akatsa zuzentzea, Itsasertzako Lurralde Zerbitzuak adierazi bezala. 19a planoa.

BIGARRENA.- Zumaiako Udalak sustatutako eta Ekoulur Ingurumen Aholkularitza S.L.Lek idatzitako Urola Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziari behin behineko onarpena ematea. (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeareen txostenen arabera aldatutako dokumentua)

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkia 2014ko irailaren 22an eta Berria, Urola Kostako Hitza eta Diario Vasco egunkarietan 2014ko irailaren 19an. Era berean, udaleko iragarki taulan eta Zumaiako Udaletxeko webgunean ere argitaratu da.

8.- Ikusirik, 2014ko irailaren 17an Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari txostena eskatu zitzaiola, 2/2006 Legeko 91.artikuluaren arabera.

9.- Ikusirik, 2014ko azaroaren 20ean, Euskal Herriko Lurralde Antolaketarako Batzordearen ziurtagiria jaso zela eta bertan jartzen dela, 2014ko azaroaren 4an, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak igorritako txostenak adierazten dituen zuzenketak jasotzen direnean, expedientea onartu ahal izango da, Batzorde honen txostena berriro eskatu gabe.

Obra Publikoetako Zerbitzuaren txostena:

1. 1.01,1.02 eta 1.03 esku-hartze gunek portuko kontradikearen ondokoak direnez, kontradikearen konponketa edo mantentze lanak egiteko, 3 esku-hartze eremuetan jaso beharko da sartzeko aukera dagoela eta ez soilik 1.01an.
2. Portu eremuko (k), 2.2.2. bainurako eremu balizatua, erabilera baimendua dela kendu beharko da (Arau Urbanistikoetako 10.artikulua).

IRIZPENA

Ondorioz, 2014ko azaroaren 24ko Ingurumen Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde:
Aitor Leiza
Iñaki Agirrezabalaga
Montse Arana
Isidro Fernandez
Emiliano Cabañas

Aurka: -

Abstentzia: -

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenenei gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikulan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.-



- Euskal Herriko Lurralde Antolaketa Batzordeak ezarritako baldintzak, dokumentuan barneratzea onartza. Honakoak dira:

Obra Publikoetako Zerbitzua:

- Kontradikea konpondu ahal izateko makineriaren sarrera onartza 1.02 eta 1.03 esku-hartze eremuetatik, luzetara, kontradikearen paralelo.
- Portu eremuko (k), 2.2.2. bainurako eremu balizatua, erabilera baimendua dela kendu. (Arau Urbanistikoetako 10.artikulua).

BIGARRENA.- Zumaiako Udalak sustatutako eta Ekoulur Ingurumen Aholkularitza S.L.L.ek idatzitako Urola Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea.

Zumaia, 2014ko azaroaren 24a.
INGURUMEN BATZORDEBURUA.
Aitor Leiza Alberdi

Aitor Leizak (ARALAR) irizpenaren edukia azaldu du eta ondoren bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (6 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA:

Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko plan bereziaren proposamena behin betikoz onartu da:

Lehena.-

- Euskal Herriko Lurralde Antolaketa Batzordeak ezarritako baldintzak, dokumentuan barneratzea onartza. Honakoak dira:

Obra Publikoetako Zerbitzua:

- Kontradikea konpondu ahal izateko makineriaren sarrera onartza 1.02 eta 1.03 esku-hartze eremuetatik, luzetara, kontradikearen paralelo.
- Portu eremuko (k), 2.2.2. bainurako eremu balizatua, erabilera



Zumaiako Udala

2014IAKU0013-007-002

baimendua dela kendu. (Arau Urbanistikoetako 10.artikulua).

Bigarrena.- Zumaiako Udalak sustatutako eta Ekolur Ingurumen Aholkularitza S.L.L.ek idatzitako Urola Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea.

4.- HIRIGINTZA.-

IRIZPENA:

**ZUMAIKO “ARTADI” 17 EREMUKO SANEAMENDU OROKORRAREN EXEKUZIOA
ZEHAZTEKO HITZARMENARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**“2014KO AZAROAREN 24KO HIRIGINTZA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA,
ZUMAIKO ARTADI 17 EREMUKO SANEAMENDU OROKORRAREN EXEKUZIOA ZEHAZTEKO
HITZARMENA ONARTZEARI DAGOKIONA.**

AURREKARIAK

1.- 2011ko ekainaren 22an alderdiek, Zumaiako Hirigintza Planeamenduko arau Subsidiarioetako Artadi 17 eremuaren eraikigarritasunaren zati bat etxebizitza tasatuen erregimenera atxikitzeke hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmenaren behin betiko onarpenaren ebañpenea 2011ko ekainaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (GAO 117 Zk.).

2.- Hitzarmen horren baitan, Zumaiako Udalak konpromisoa hartu zuen “Inmobiliaria Orio Txoko Txiki, S.L.” merkataritza-sozietateak, 17 eremuaren antolamendu xehatua aldatzeko aurkeztutako Plan Bereziaren izapideak sustatzeko, planak behin betiko onespresa izan zezan. Zumaiako Udalaren Udalbatzak 2011ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran Zumaiako 17 HA-Artadiko 17/3 EUko 4 E partzelari eta 17/2 EUko 1.1 eta 1.2 partzelei dagokion Antolaketa Xehakatuaren Aldaketa Puntualerako Plan Berezia behin betiko izaeraz onartu zuen; akordio hori 2011ko urriaren 5ean, 190. zenbakian, argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- 17/3 EUko 4.E. partzelan eta 17/2 EUko 1.1 eta 1.2 partzeletan eraikiko diren hamabost etxebizitzak Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuen araubide juridikoaren baitan egongo dira (Etxebizitza tasatuen Udal Ordenantzak arautzen du araubide hori). Hitzarmenak dio etxebizitzek udal-ordenantzetan ezarritako araubidea betetzeari utzi ahalko diotela baldin eta Zumaiako Udalak ez badio ematen sustatzaileari etxebizitza tasatuen onuradunen behin-behineko zerrenda epe hauetan: antolamendu xehatuaren aldaketa behin betiko onartu eta hamabi hilabetera (2012ko irailaren 29a) edo Udalak idatzitako aldeko txostena jaso eta bederatzi hilabetera □hiru eraikinetako azkenaren oinarrizko proiektuari buruzkoa izango da txosten hori□ (2012ko irailaren 30a).



Akordioak dio, hori gertatzen bada, sustatzaileak nahierara saldu ahalko dituela etxebizitzak, prezio mugarik gabe eta nahi duenari eta ez duela aipatu hitzarmenaren BIGARREN xedapeneko lege-araubidea bete beharko.

Zumaiako udalbatzak, 2013ko martxoaren 21eko ezohiko bilkuran, etxebizitzarik esleitu ez zela ikusirik eta Zumaiako hirigintza planeamenduko Arau Subsidiarioetako Artadi 17 eremuaren eraikigarritasunaren zati bat etxebizitza tasatuen erregimenera atxikitzeko 2011ko ekainaren 22an sinatutako hitzarmenaren hirugarren xedapenak ezarritakoari jarraiki, 17/3 EUko 4.E. partzelako eta 17/2 EUko 1.1 eta 1.2 partzeletako hamabost etxebizitzak erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen araubide juridikoari atxikitzeko betebeharra amaitutzat ematea erabaki zuen, eta ondorioz, behin-behineko kalifikazioa indar gabe uztea; horrela, jabetzak eskubidea du etxebizitzak salmenta librean eskualdatzeko. Erabaki hori 2013ko apirilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (GAO 63 zk.).

4.- 2011ko ekaineko Hitzarmenaren baitan, Zumaiako udalak bere gain hartu zuen (Bosgarren Xedapena.) 2012ko ekainaren 30a baino lehenago Artadi auzoko saneamendu sarea hobetzeko obrak exekutatzeko konpromisoa. Era honetara, udalak Joxe Mari Korta Industriaguneko sarea luzatu eta 17.2 E.U. Urbanizazio Proiektuaren 09.1 Saneamendu orokorreko planoan zehazten den punturaino saneamendu sare orokorra eraiki behar zuen.

2012 eta 2013ko udal aurrekontuetan helburu hau gauzatzeko beharrezko inbertsioa ezarri baten ere eta aipatutako obra kontratuaren esleipena esleitzeko lizitazio prozedura martxan jarri baten ere, Udalak, prozedura hori bertan behera uztea erabaki zuen, horretarako justifikatutako arrazoik zeudelako; hau da, proiektua lekukotu behar zen lursail zati baten gaineko erabilgarritasun eza eta proiektuaren funtsezko aldaketak ezin zuzendu zitezkeen arau-haustea zekarrelako. Horregatik, eta 17.2.E.U. eremuko sustapenaren geldialdia medio, udal gobernuak helburu hau gauzatzeari uko egin dio. Hori dela eta, 2014ko udal aurrekontuetan ez da horretarako inbertsiorik aurreikusi.

Hasierako proiektuan ikusitako akatsak zuzentzekeo, 2014ko azaroaren 7ko 650/2014 Alkate Dekretu bidez, "Zumaiako San Miguel de Artadi auzoko saneamendu, ur-hornikuntza eta gas proiektuen aldaketa eta aktualizazioa" izeneko Proietua onartu zen.

2014ko otsailaren 12ko txosten teknikoa ikusita eta hitzarmenaren helburua proiektuaren exekuzioa zehaztea izanik,

IRIZPENA

Ondorioz, 2014ko azaroaren 24ko Hirigintza eta Obra eta Zerbitzuen Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Agirrebalaga (Bildu)
Maitane Agirre (Bildu)
Isidro Fernandez (EAJ)
Montse Arana (EAJ)
Emiliano Cabañas (PSE)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren



Zumaiako Udala

2014IAKU0013-007-002

Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikulan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

Primero.- Zumaiako Artadi 17 eremuko Saneamendu orokorraren exekuzioa zehazteko hitzarmenari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. paragrafoan ezartzen denari jarraiki, hogei eguneko epea irekitza, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hitzarmena jendaurrean jarri eta interesatuek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Hirugarrena.- Hitzarmena behin betiko izaeraz onartuta geratuko da, baldin eta hura jendaurrean jarri den epean idatzirik edo alegaziorik egin ez bada.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea udalaren izenean aipatutako hitzarmen hori formalizatzeko eta ebazpen hau gauzatzeko diren dokumentu guztiak sinatu ditzan.

Zumaian, 2014ko azaroaren 24an
Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeburua
Iñaki Agirrezabalaga Alkorta"

Alkateak irizpena azaldu du eta jarraian bozkatzeri ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 8 boto (6 EH BILDU, 1 PSE, 1 ARALAR)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 5 boto (5 EAJ-PNV)

ERABAKIA:

Zumaiako "Artadi" 17 eremuko saneamendu orokorraren exekuzioa zehazteko hitzarmenari hasierako onarpena eman zaio:

Primero.- Zumaiako Artadi 17 eremuko Saneamendu orokorraren exekuzioa zehazteko hitzarmenari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. paragrafoan ezartzen denari jarraiki, hogei eguneko epea irekitza, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari



Zumaiako Udala

2014IAKU0013-007-002

Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hitzarmena jendaurrean jarri eta interesatuek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Hirugarrena.- Hitzarmena behin betiko izaeraz onartuta geratuko da, baldin eta hura jendaurrean jarri den epean idatzirik edo alegaziorik egin ez bada.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea udalaren izenean aipatutako hitzarmen hori formalizatzeko eta ebazpen hau gauzatzeko diren dokumentu guztiak sinatu ditzan.

5.- ESKARI – GALDERAK..

Montse Aranak (EAJ-PNV) galdetu du ea Foru Aldundiak proposatutako eta Zestoako zabortegiak eragina izango duen Zumaian.

Aitor Leizak (Aralar) Osinbeltzen aurreikusi den proiektua ondo egiten bada ez duela zertan arazorik sortu behar adierazi du; nolanahi ere, deigarria iruditu zaio proiektu honen inguruan EAJ-PNV-ek azaltzen duen kezka, Zumaiani aspalditik eragiten dion Aizarnazabalgo paper-fabrikarekin alderatuta.

Peru Fernandez-Arroyabek (EH BILDU) esan du politikariek “expertoen” papera egitea ez dela serioa eta eztabaidea objektiboa da hain zuzen benetan behar dena, teknikari independenteen lanean oinarrituta.

Emiliano Cabañasek (PSE-PSOE) esan du ez dagoela beharrik kanpotik teknikariak ekartzeko; udal-teknikariak soilik irizpide teknikoetan oinarrituta bideratu behar dutela euren lana; eta, udal teknikarien iritzia ez bada errespetatzen zertarako eduki teknikari propioaki ez badira erabiltzen.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta hogeita hemezortzi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.



Zumaiako Udala

2014IAKU0013-007-002

Idazkaria



ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 87

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día veintisiete de noviembre de dos mil catorce, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión ordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

Presidente: Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

Concejales:

Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua
Sr. Iñaki Ostolaza Esnal
Sr. Peru Fernandez-Arroiabe Txapartegi
Sr. Eneko Agirre Maiora
Sra. Maitane Agirre Arrieta
Sr. Montse Arana Perez
Sra. Edurne Egaña Manterola
Sr. Isidro Fernandez Echave
Sr. Xabier Gallastegi Idigoras
Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua
Sr. Aitor Leiza Alberdi
Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez

No presentes

Secretario: Gorka Urgoiti Agirre



ORDEN DEL DÍA

**1- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR:
(Núm. 82 - 26.06.2014);**

Se ha aprobado el acta nº 82.

2.- HACIENDA.-**2.1.- DAR CUENTA DE LA 13 MODIFICACION PRESUPUESTARIA DEL
AYUNTAMIENTO Y DE LA 2º MODIFICACION DEL PATRONATO DE DEPORTES.**

Kirol Patronatuko 2.kreditu aldaketa.					
637/2014 alkate dekretua.					
Zaldi lasterketa antolatzen duen elkarteari dirulaguntza.					
			Hasierako kreditua	Gutxikuntza	Guztira
1 0000.226.452.10.90 2014	94	ZALDI LASTER KETA	2.500,00	2.000,00	500,00
			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0000.481.452.10.04 2014	19	KIROL JARDUERATARAKO DIRU LAGUNTZA	52.000,00	2.000,00	54.000,00
Udaleko 13.kreditu aldaketa					
638/2014 alkate dekretua					
2 ekipo berri erosteko kreditu aldaketa					
			Hasierako kreditua	Gutxikuntza	Guztira
1 0900.227.121.00.97 2014	45	SAVIA APLIKAZIOAREN MANTENUA	3.690,00	1.000,00	2.690,00
			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0900.626.121.00.01 2014	583	E KIP AMENDU INFORMATIKOA	13.000,00	1.000,00	14.000,00

Arritokieta Gonzalez (EH BILDU) ha dado cuenta de las modificaciones de crédito.



2.2.- DICTAMENES:

**2.2.1.- APROBAR, SI PROcede, EL CREDITO DE COMPROMISO PARA
□EURBANIZACIÓN AITA-MARI AUZATEGIA, (GARAJES)**

DICTAMEN PARA LOS CRÉDITOS DE COMPROMISO PARA AITA MARI

ANTECEDENTES

Para los siguientes años no hay nada previsto y según el convenio de Alta Mari que se va a firmar es necesario aceptar los siguientes créditos de compromiso.

Para Aita Mari en total se necesitan 239.258,10€ y para ello, hay que aceptar los siguientes créditos de compromiso:

Crear nuevos créditos de compromiso para el 2015:

GASTOS:

"5 0100.601.511.00.03 2015" "REURBANIZACIÓN DE AITA MARI, GARAGES BAJO ESPACIO DE USO PÚBLICO" 239.258,10€

INGRESOS:

"7 0000.780.000.00.01 2015" "APORTACIÓN A LA REURBANIZACIÓN DE AITA MARI": 34.404,69€
"AHORRO NETO DE 2015": 204.853,41€

Para ello, se utilizará el ahorro neto.

Estos compromisos de crédito cumplen con lo dispuesto en el artículo 22 de la Norma Foral 21/2003.

DICTAMEN

En la Comisión de Hacienda celebrada el 18 de noviembre del 2014 se ha aceptado la propuesta de créditos de compromiso para Aita Mari.

